



argitaletxea edo!

P.K. 618 - 20080 Donostia - Gipuzkoa.
argitaletxeaedo@gmail.com
www.argitaletxeaedo.org



Izenburua: Eta Karmele?

Egilea: Samara Velte.

Ezaugarriak: Antzerkia. 10 x 16 cm.

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2012ko abendua.

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-3-7

Bi emakume auto baten barruan, Karmeleren zain. Inoiz iristen ez den Karmele, behinola mantxa batek jazarri zuen Karmele.

Hari horretan nabarmena da Eta Karmele?ren azpian dagoen zorrigaitzeko zirkulua, emakumeei eta batez ere guztioi dagokiguna, bortizkeriaren itzala dakarkiguna, historia bezain luzea. Ba ote zentzugabekeriaren ikur gorenagorik, amaitu beharreko mundu gerra luzeagorik, gizartearen ispilu zorrotzagorik? Eta Karmele?-ren egileek umore absurduaren zartadetan kokatu dute egunero-kotasuna astintzen duen gatazka.

Absurduaren koordinatuetan koka genezake antzezlan hau: bizitza bezain absurdua den umorea, ezintasunari aurre egiteko umorea. 'Eta Karmele?' 2008ko azaroaren 25ean estreinatu zen Zarauzko Euskalduna Tabernan, Kafe Torerok Emakumeeekiko Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira antolatuta. Ainhoa Alberdik eta Iraia Eliasek antzestu zuten, eta haiek idatzi dituzte liburu honetako hitzaurreak. Orduetik laurogei emanaldi inguru eskaini dituzte.

Samara Velte



Zarautzen jaio zen 1991n; behin eta berriro erbestera-
tzen saiatu arren, beti leku berera itzultzen da ezinbes-
tean. Toki gehienetan lekuz kanpo sentitu, eta antzerki
lokaletan errefuxiatu zen nerabezaroan; txikitako ira-
kurzaletasunarekin nahastuta, hor hasi zen gidokiekin
esperimentatzen, berak ezagutu nahi lituzkeen pertso-
naiak eta eduki nahi lituzkeen elkarrizketak asmatzen.

2008an, batxilergoko bigarren mailan, Ainhoa Alberdik
eskatuta idatzi zuen *Eta Karmele?*, inguruan entzunda-
ko bitxikeriak eta elkarrizketa absurduak gordetzeko
ohiturari behingoz probetxu pixka bat ateraz. Jolas gisa
planteatu zuen; orduan susmatu ere ez zuen egiten lau
urte geroago oraindik esku artean izango zuela.

Gaur egun Ikus-Entzunezko Komunikazioa ikasten
ari da, eta baita ikusten eta entzuten ere. *Karmele*-
rekin harreman arraroa du, iruditzen baitzaio bietako bat
gehitxo aldatu dela bestearekin alderatuta. Samarak,
behintzat, antzerkia nahiko utzita dauka, baina idazten
jarraitzen du, *Berria* egunkarian ari baita lanean. *Kar-
mele*, berriz, auskalo zertan dabilen.

Ainhoa Alberdi eta
Iraia Elias aktoreek ida-
tzi dituzte liburuko hitzurreak,
antzezpena izan denaren isla
paperera ekarriz. Aktore biek
TTAK teatroa izeneko taldea osa-
tzen dute; *Eta Karmele?* izan zen
haien lehen lana, 2012ko aben-
duan estreinatutako *Ta uain ze?*
bigarrena.

Oier Guillanek idatzi
du hitzostea. Poesia eta antzerkia
publikatu ditu batik bat, kazeta-
ri gisa antzerkia eta literaturari
buruz idazten aritua da. Metro-
koadroka kolektiboko kide gisa
hainbat lan eszeniko burutu ditu.



ARGAZKIA: JOSEBA BARRENETXEA